

59 proiekturi 876.032,85 euro emango zaizkie, ekintzailetzako foru laguntzetan

Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a. Foru Gobernu Kontseiluak gaur ebatzi du ekintzaile izan eta lurraldean enpresa berriak sortzeko 2019ko laguntza deialdia. Azkenean, onetsitako 59 proiekturi emango zaizkie laguntzen 876.032,85 euroak. Laguntza horiek EGEFeko funtsekin batera finantzatuko dira % 50ean.

Enpresa berriak sortzea funtsezko ardatza da enplegua eta aberastasuna sortzeko. Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiak ezinbesteko jotzen du ekintzaileak laguntza tresnez hornitzea, enpresa sortzen ari direla; hots, laguntzea ideia dutenetik harik eta proiektua abian jarri, zabaldu eta tinkotzen den arte.

Deialdi honetan, Araban enpresa berriak sortzeko 88 proiektu aurkeztu dira; horietatik 59 onartu dira, hau da, aurkeztutakoen % 67 -2018an baino 7 puntu gehiago-. Gainerako eskaerei ezetza eman zaie, araudian jasotako arrazoi objektiboren batengatik edo eskatzaileek uko eginda.

Halaber, proiektu bakoitzari batez beste 14.848 euroekin lagundu zaio, azken 4 urteko batez bestekoaren aldean (11.906,85 euro izan zen) % 24,7ko gehikuntza dena. Horren arrazoia da 2019an eutsi egin zaiola, 2016an gehienezko dirulaguntzetan izandako gehikuntzari, 20.000 eurotik 30.000 eurora gehitu baitzen, proiektuko eta urteko. Muga hori 40.000 euroan jarriko da, baldin eta proiektuak gehienez lor daitezkeen 100 puntutik 80 edo gehiago lortzen baditu.

2019ko deialdian emakume ekintzaileen aldeko diskriminazio positiboari ere eusten zitzaion, bai eta 20.000 biztanletik beherako udalerrietan abiarazitako proiektuen aldekoa ere; bi kasuetan dirulaguntzan ehuneko 5 gehiago jaso ahal izan dute eta, hala, dirulaguntza iritsi ahal izan da diruz lagun zitezkeen gastuen % 60ra. Onetsitako 59 proiektuetatik % 25etan emakume ekintzaileak dira liderrak edo partaide, eta enpresa berrien % 8 kokatuko dira 20.000 biztanle baino gutxiago duten Arabako Lurralde Historikoko udalerrietan.

Datu horiek azaltzen dutenez, lanean jarraitu beharra dago eta baliabideak eskaini emakumeen partaidetza handiagoa lortzeko arlo edo jarduera



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

berritzailetan, enpresa berriak sortzeko orduan, bai eta zabalkunde handiagoa emateko helburuan ere lurraldean zehar enpresa jarduera berriak sortzen direnean, biztanleria finkatu eta haren garapen ekonomikoa handitzen lagun dezaten.

Beste alde batetik, eskatzaileen % 58k Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (<https://e-s.araba.eus>) egin du eskaera; 2018an, berriz, % 31k erabili zuen.

Laguntzak mota guztietako ekintzaileengana heltzen dira, betiere haien enpresa proiektuak laguntzen baldin badu Arabako ehun produktiboa modernizatzen, dibertsifikatzen eta lehiakortasunean hobetzen. Proiektu azpimarragarriak dira hauek: talka egiten duen ibilgailu bateko bidaiariaren larritasuna eta hilgarritasuna neurtuko duen indize baten garapena, istripuak eta zaurituak kudeatzeko; neuroerrehabilitazio klinika bat, hartutako burmuineko gaitza daukaten pertsonen tratamendu integrala emateko; adina ziurtatzeko adimen artifizialaren aplikazioa; hiru enpresa proiektu zibersegurtasunaren arloan: aholkularitza, ibilgailu eta robotikan; ingeniari bat ikusmen artifizialean; edo soluzio aurreratuetarako kontrol elektronikan.

Foru Aldundiak milioi bat euro baino gehiago bideratuko ditu Arabako landa bideak hobetzera

648.000 euro zuzenduko ditu Arabako 52 landa bide hobetzera, toki erakunde titularrei dirulaguntzak emanda

Gainera, beste 450.000 euro inbertituko ditu landa bide horien mantentze zerbitzuan

Foru Gobernu Kontseiluak hartutako bi erabakiri esker, milioi bat euro baino gehiago inbertituko dira landa bideak hobetzeko.

Lehenengo erabakiak aurreikusten du dirulaguntzak ematea zenbait udalerrri eta kontzejutako 52 bide hobetzeko (ustategietarako sarbideak eta landa bideak). Guztira, aldundiak 648.000 euro inbertituko ditu zeregin horretan (499.000 euro 2019an, eta 149.000 euro 2020an).

Laguntza horiek jasota daude Euskadiko Landa Garapenerako Programa 2015-2020 egitasmoan (nekazaritza eta basozaintza garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegiturretako inbertsioen barruan, hain zuzen), eta % 53a Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatzen du.

Dirulaguntza horien zati bat fenomeno naturalek edo muturreko baldintzek hondatutako azpiegiturak konpontzeko erabiliko da. Esate baterako, Arroiabe, Gopegi, Eztarroa, Baranbio eta Bilarko bideak konpontzeko.

Bestalde, udalerrri hauek ere dirulaguntzak jasoko dituzte beren bideak egokitzeko: Artziniega, Agurain, Kripan, Moreda Araba, Erriberagoitia, Leza, Eltziego, Lantziego, Samaniego, Iekora, Lapuebla de Labarca, Eskuernaga, Oion eta Asparrena.

Azkenik, dirulaguntzak jasoko dituzte kontzeju hauek: Luxo, Erbi, Luiaondo, Antoñana, Oteo, Egilatz, Tuyo, Mezkie, Korres, Aperregi, Corro,

Villambrosa, Dura, Trokoniz, Leziñana, Mandaita, Adana, Albeiz, Uribarri Gaubea, Anuntzeta, Bachicabo, Narbaxa, Berantevilla eta Añes.

Beste milioi erdi mantentze lanetarako

Helburu berarekin, Aldundiak erabaki du Arabako Foru Aldundiaren Landa Bideen Erregistroan sartuta dauden landa bideen mantentze lanak egiteko zerbitzua esleitzea, beste milioi erdi euroan.

Kasu honetan, Aldundiko Nekazaritza Saila bera arduratuko da landa bideak mantentzeaz eta kontserbatzeaz, zeregin horiek erakunde titularren bidez egin beharrean.

Honetan datzate lan horiek: landa bideen egitura elementuak garbitu eta lehengoratu, haien erroadura zona egokitu, eta beharrezkoak diren bestelako lanak egin, bideak egoera onean mantentzeko eta landa finkei edo nekazaritza ustiatuei zerbitzu emateko.

Guztira, Aldundiko Nekazaritza Sailak 449.998 euro inbertituko ditu zeregin horietan, eta hiru enpresari esleitu die zerbitzua, eskualdearen arabera. Zehazki, Obras Públicas Onaindía enpresa arduratuko da Gasteizko eta Gorbeialdeko kuadrilletako bide batzuetan egin beharreko lanez (Gasteiz, Legutio, Aramaio eta Arratzua-Ubarrundian); Nuño y Pescador SA enpresa Gorbeialdean arituko da (Urkabustaiz, Zuia eta Zigoitian), eta Ismael Andrés SAK mantenduko ditu Arabako Errioxan diruz lagundu daitezkeen landa bideak (Bilar, Lantziego eta Kripangoak).

Foru Aldundiak ludopatiak prebenitzeko programak garatuko ditu Asajer elkartearekin

Foru Gobernu Kontseiluak onespena eman dio gaur Arabako Foru Aldundiak Asajer elkartearekin –Errehabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkarteak– izenpetuta duen hitzarmena luzatzeari. Hitzarmena Gasteizko Udalak ere izenpetzen du, eta ludopatiei aurrea hartzeko, ludopatak bideratzeko eta ludopatei informazioa emateko zerbitzuak eta programak garatzeko da. Foru aldundiak 54.436 euro emango ditu hitzarmen horretarako.

Hauexek dira Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Asajer elkarteak duten lankidetzaren barruko programen helburu nagusiak:

-Ludopatiari eta substantzia gabeko beste adikzio batzuei –hala nola, teknologia berriak, apustuak eta Internet bidezko erosketak– buruzko informazioa, zabalkundea eta sentzibilizazioa ematea herritarrei. 2018an, guztira, aholkularitzako 3.100 ekintza egin ziren.

-Prebentzio ekintzak sustatzea, hala nola laguntza taldeak antolatu eta portaera problematikoa edo joko adikzioa duten pertsonak errehabilitatzea, bai eta haien familiak ere.

-`Begirada´ programa egitea, hain zuzen, landa ingurunean zehatz-mehatz jarduteko, informazio eta komunikazio teknologien eta zorizko jokoen adikzioa atzeman eta haiei buruzko sentzibilizazioa eta gizarte arreta emateko; iaz lurraldeko mila ikasleri heldu zitzaien programa hori.

-Herritarren artean identifikatzea zein zen arrisku gehien daukaten arloak eta prebentzio ekintzak sustatzea, besteak beste, zabalkunde materialak argitaratuz eta lantegiak eginez nerabe eta gazteentzat.

Asajer irabazizko xederik gabeko entitate da, 1989an sortu zena ausazko jokoen adikzioaren problematikari erantzuteko; geroago bestelako adikzioak ere sartu ziren, hala nola bideo-jokoak, eskuko telefonoa eta Internet. Elkartearen helburuetako batzuk dira adikzioei aurrea hartzea, arreta ematea eta errehabilitatzea, eta eragindako pertsonak eta horien ingurunea dira beren jardunaren xede, bai eta arrisku bereziko egoeran dauden gizartearen zenbait atal ere, eta, oro har, biztanle guztiak.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Foru Aldundiak Korresko hilerriko euste horma konpontzeko lanak finantzatzeko ditu

Arabako Foru Aldundiak aurrera jarraitzen du toki erakundeek ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntza programarekin. Gaur, Foru Gobernu Kontseiluak onetsi du 24.919 euroko dirulaguntza ematea Korresko Administrazio Batzarreko (Arraia-Meztu) hilerriko euste hormaren egitura konpontzeko, egitura hori, dagoen egoeran, arriskutsua izan daitekeelako pertsonentzat.

Dirulaguntza deialdi horren barruan Foru Gobernu Kontseiluak aurten onetsi duen bigarren laguntza esleipena da.

Apirilean, guztira 330.442 euroko laguntzak eman ziren obrak egiteko Bastidan, Subida del Olmo kaleko kalatuetan eta etxebizitzetan irazpen arazorik izan ez zedin, eta Atauriko Administrazio Batzarrean (Arraia-Maeztu), Arriba auzoan euste horma bat berreraiki zedin.



Foru Aldundiak Eskibel kontzeju gasteiztarreko batzorde kudeatzailea eratu du, hango gobernu organoak hutsik baitzeuden

Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur onetsi du Eskibel kontzeju gasteiztarreko batzorde kudeatzailea eratzea Gasteizen, bai eta bertako kide izango direnak izendatzea ere. Toki erakunde horretako gobernu organoak hutsik egon dira Arabako Lurralde Historikoko kontzejuen hauteskundeak izan zirenetik, hau da, 2017ko azaroaren 26tik, ez baitzen inolako hautagairik aurkeztu.

Eskibelen biztanle gutxi egon arren -gaur egun bi pertsona daude erroldatuta-, Arabako Foru Aldundiak uste du garrantzitsua dela lurraldeko administrazio batzar guztien identitateari eustea. Hori dela eta, batzorde kudeatzailea sortu da, administrazio batzarrari dagozkion egitekoak bete ditzan, Eskibelen bizi diren pertsonak osatuta.

Foru Ogasunak eguneratu ditu Arraia-Maeztuko udalerriko katastro balioak

Katastro balioak % 0,86 igoko dira batez beste, baina OHZ dela-eta ordaindu beharreko azken prezioak udalak onesten duen zerga tasaren arabera kalkulatu dira

Udalerriko balio berriak 2020an jarriko dira indarrean

Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onetsi du Arraia-Maeztuko udalerriko katastro balioen txosten berria. Horren ondorioz, lurzorua eta eraikuntzaren balio berriak, ondasun higiezinaren gaineko zergari (OHZ) atxikiak, 2020an jarriko dira indarrean eta egungo balioak ordeztuko dituzte, 2005etik indarrean daudenak.

Arabako Ogasunak egin duen eguneratzearen ondorioz, katastro balioak % 0,86 igoko dira batez beste, udalerrian lurzorua eta eraikuntzaren balioaren jaitsierak ez duelako guztiz konpentsatu eraikuntzaren balioaren igoera.

Hala ere, zergadun bakoitzak datorren urteko OHZren fakturan ordaindu beharreko azken zenbatekoa udalak urte honetan onesten duen tasaren arabera izango da.

Foru Ogasunak jabe bakoitzari jakinaraziko dizkio posta bidez bere ondasun higiezinaren katastro balio berriak. Halaber, foru bulegoetan bertaratuta ere jakinaraziko zaizkie, posta bidez egitea ezinezkoa izanez gero.

Foru Ogasunak eguneratu ditu Lagrango udalerriko katastro balioak

Katastro balioak % 14 jaitsiko dira batez beste, nahiz eta OHZ dela eta ordaindu beharreko azken prezioak udalak onesten duen zerga tasaren arabera kalkulatu diren

Udalerriko balio berriak 2020an jarriko dira indarrean

Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onetsi du Lagrango udalerriko katastro balioen txosten berria. Horren ondorioz, lurzorua eta eraikuntzaren balio berriak, ondasun higiezinaren gaineko zergari (OHZ) atxikiak, 2020an jarriko dira indarrean eta egungo balioak ordeztuko dituzte, 2009tik indarrean daudenak.

Arabako Ogasunak egin duen eguneratzearen ondorioz, katastro balioak % 14 jaitsiko dira, batez beste. Hori guztiori, eraikuntzaren prezioak gora egin duen arren eta udalerriko lurzorua balioak nabarmen behera egiteari esker.

Hala ere, zergadun bakoitzak datorren urteko OHZren fakturan ordaindu beharreko azken zenbatekoa udalak urte honetan onesten duen tasaren arabera izango da.

Foru Ogasunak jabe bakoitzari jakinaraziko dizkio posta bidez bere ondasun higiezinaren katastro balio berriak. Halaber, foru bulegoetan bertaratuta ere jakinaraziko zaizkie, posta bidez egitea ezinezkoa izanez gero.

Aldundiak 600.000 euro baino gehiago inbertituko du Arabako errepideen segurtasuna hobetzeko

Zeharbideetan eta istripu ugariko errepide tartetan esku hartuko du

Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak datozen hilotan 606.000 euro inbertituko ditu, guztira, Arabako errepideen segurtasuna hobetzeko. Ekintza programa honek lehentasuna emango die hiri zeharbideei eta istripu ugariko errepide tarteei.

Gaur, Foru Gobernu Kontseiluak onetsi du hemendik 2019aren amaiera arte eta 2020 osoan ekintza horiek gauzatzeko euskarria izango den prebentzio eta arintze neurrien kontratuaren esleipena. Kontratu horren aurrekontua 606.000 euro da, eta gauzatzeko epea bederatzi hilabete.

Programa horren bidez finantzatutako proiektuek abiapuntu hartzen dituzte udalek, administrazio batzarrek eta herritarrek egindako proposamenak, foru erakundeko bide segurtasuneko teknikarien txostenak eta une hauetan egiten ari den 2014-2018ko istripu azterketaren ondorioak.

Kontratu horren bidez, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak ekintzak egingo ditu Arabako hainbat herritako zeharbideetan eta hiri barruko bide tartetan, ibilgailuak igarotzen diren abiadura gutxitzeko. Kasuen arabera, seinaleztatze horizontala eta bertikala indartzea eta zirkulazioa baretzeko neurriak hartzea izango da ekintza horien muina.

Lan egitasmoan, besteak beste, leku hauetan jardutea aurreikusten da: Berganzoko zeharbidea (A-3126) eta Artziniegakoa (A-2602); A-2122 eta A-2626 errepideen gurutzagunea, Larrazubin; eta A-4130 errepidea Okarizko sarreran. Teknikariek puntu bakoitzaren ezaugarriak eta beharrianak aztertu eta irtenbiderik egokienak zeintzuk diren erabakiko dute.

Segurtasuneko prebentzio eta arintze neurrien kontratuak, halaber, bide emango du txosten teknikoetatik eta herritarren eskaeretatik abiatuz hobetze



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

ekintzak egiteko. Ekintza horien artean, jasota dago euspen sistema narriatuak ordeztzea; hesi berriak ipintzea, motorista eta txirrindularientzat egokituak, arriskuko zonetan; erdibitzaile pasabideak eta talka-motelgailuak ipintzea, etab.

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila foru errepideen sareko 2014-2018 aldiko istripuei buruzko azterlana egiten ari da une hauetan. Azterlan horrek istripu ugari bide tarteari zehaztuko ditu, eta haietan segurtasuna hobetzeko ekintzak planteatuko ditu. Horiek ere kontratu honen bidez finantzatu dira.

Azkenik, segurtasun programak honako hauek ere jasotzen ditu: fauna seinale bereziak ipintzea ehiza espezieekin istripu ugari izaten diren bide tartean; eta fauna uxatu eta erakartzen duten produktuak erabiltzea animaliak gurutzagune seguruetara bideratzeko (fauna pasabideak), eta horrela ez daitezen sartu errepidera oraingo gurutzaguneetan.

Carlos Ibarlucea eta Inmaculada Sánchez dira Bide Azpiegituren eta Kulturako zuzendari berriak

Carlos Ibarlucea Martínez eta Inmaculada Sánchez Arbe dira gaurtik aurrera Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Kulturako zuzendari berriak. Foru Gobernuaren Kontseiluak bi kargu horiek izendatu ditu Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren eta Kultura eta Kirol Sailaren barruan, hurrenez hurren.

Hona hemen bi zuzendari berrien curriculum vitaeko edukirik aipagarrienak:

Carlos Ibarlucea Martínez

Arkitektoa, Hirigintza espezialitatekoa, lan eskarmentu handia dauka langileen kudeaketa eta antolamenduan eta obra publikoko proiektuak idatzi eta egitean, bai udal mailan (Gasteizko Udala) bai probintzia mailan (Mendialdeko Kuadrilla); gainera, oso sakon ezagutzen du Arabako Lurralde Historikoa.

Gasteizko Udaleko ibilbidea hasi zuen Arkitektura zerbitzuko burua izaten Gasteizko Udaleko Hirigintza Sailean (2003-2011), gero proiektu kudeaketaren arkitekto arduraduna izan zen Etxebizitzarako eta Hiriberrikuntzarako Udal Eragintegian (2011), Hirigintza Saileko zuzendari nagusia (2011-2015) eta proiektu kudeaketaren arduraduna Ensanche 21 SA udal sozietatean.

Udalan egondako 16 urte horietan zehar, hainbat hirigintza eta arkitektura proiekturen plangintzan, zuzendaritzan, koordinazioan eta ikuskaritzan hartu du parte, hala nola Abetxuko zubia, Iradier Arena, tranbiaren obrak, Andra Maria Zuriaren plazaren urbanizazioa, Mendizorrotzako barruko igerilekuak, Amarikako aparkalekua, haur eskolak, gizarte etxeak...

1991 eta 2003 artean, Mendialdeko Kuadrillarako ere egin zuen lan, laguntza teknikoa ematen hirigintza eta eraikuntza arloetan, eta parte hartzen zenbait proiektutan, esaterako udalerrri eta herrietako alde zaharrak bereonertzeko plan bereziak eta bertako industrialdeetan eta eraikin publikoetan esku hartzen.



Inmaculada Sánchez Arbe

Gizarte Laneko diplomaduna, Euskal Herriko Unibertsitatean, bere lan ibilbide guztia zenbait erantzukizun kargutatik Gasteizko Udalean egin du kultura sustatu eta garatzeari lotuta. Funtzionario plaza dauka udalean. Harremanak ditu hirian eta lurraldean diharduten eragile eta mugimendu kulturalekin eta horregatik ezagutzen ditu.

Bere lehen etapan, Kultura Jardueretako teknikaria izan zen Kultura Sailean (1988-1998), eta geroago erantzukizun handiagoko egitekoak hartu zituen bere gain, betiere kulturari lotuak. Kultura Saileko Kultura Jardueren Zerbitzuko burua (1998-2008) eta Kultura Sailaren zuzendaria (2008-2011) izan zen.

Azken etapa horretan, Antzerkien Udal Sarea eta Udalaren Musika Banda kudeatu zituen, besteak beste, eta arte garaikidea eta feminismoa lotzeko zen Montehermoso Kulturunearen proiektua sustatu zuen.

2011tik gaur arte, Gizarte Etxeetako Kultura Jardueren Unitatearen arduraduna izan da, Gasteizko Udalaren Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailean, eta bere gain izan du Gasteizko gizarte etxe guztien programazio kulturalaren ardura (kultura prestakuntza, liburutegiak, antzezlan eta arte eszenikoetako programak...).



Patxi Antón Idróquilis izango da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko kudeatzaile berria

Foru Gobernu Kontseiluak gaur goizean onetsi du haren izendapena

Foru Gobernu Kontseiluak erabaki du Patxi Antón Idróquilis izendatzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendari kudeatzaile. 2017ko martxoaz geroztik, Indesa 2010 SL enplegurako zentro bereziko zuzendaria izan da. Zentro hori Arabako Foru Aldundiaren sozietate publikoa da, Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikia dago eta hango plantilla gehienbat desgaituek osatzen dute.

Patxi Antón Idróquilis

Urduña, 1962

Kargua

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendari kudeatzailea

Ikasketak eta prestakuntza

Ostalaritza eta turismoko teknikari espezialista

Ibilbide profesionala eta politikoa

INDESA 2010 SL enplegurako zentro bereziko zuzendari kudeatzailea (2017ko martxotik gaur egunera arte)

Sáenz Horeca SLko arloko arduraduna

Lumagorri SLko zuzendari kudeatzailea

Baskonia Kirol Hiriko (BAKH) zuzendari kudeatzailea

Arabako Errioxako Upeltegien Elkarteko (ABRA) zuzendari kudeatzailea

Karlos Arguiñanoren Sukaldaritza Eskolako zuzendaria eta fundatzailea

La Perla Zerbitzu Instalazioetako zuzendari kudeatzailea

Pequechef SLko zuzendaria

Gasteizko Ostalaritzako Goi Eskolako zuzendaria